

3.3. Baliabideak

Euskal hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunerako eta tratu onerako bidean finkatzeko, honako baliabide hauek behar dira:

1. Prestakuntza ahalbidetzea 1.1. helburu zehatzarekin zerikusia duten ekintzetan.
2. Prestakuntza emango dute, batez ere, Berritzeguneetako langileek (mintegiak, ponentziak, ikastaroak, jardunaldiak ...), hainbat erakundek (Prest-Gara eskaintza) eta UPV/EHUK.
3. Ikastetxeetan hezkidetza-planak egiteko, ezartzeko eta horien jarraipena egiteko (2.3 helburu estrategikoa) laguntza-zerbitzuen (Berritzeguneak) aholkularitza ahalbidetzea.
4. Ikastetxeei laguntzeko orientabideak, materialak, baliabideak eta abar prestatzea, beren dokumentuak, praktikak ... berrikusi eta eguneratzeko genero-ikuspuntutik eta hezkidetza-planak garatzen lagunduko dieten erabakiak hartzeko. (2.1 eta 3.1 helburu estrategikoa).

Zonaldeko Berritzeguneetako kideak, Berritzegune Nagusiko kideak, Ikuskaritzako kideak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Teknikaria – hezkuntza esparrua – eta EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea izango dira, gehienbat, material horiek egingo dituztenak. Era berean, sailetik kanpoko espezialistek egiteko aukera ere aurreikusten da.

5. Ikastetxeak baliabidez hornitzea hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko lana garatzeko (2.3. helburu estrategikoa, 29. eta 30. ekintzak).